

HERRIAK ETA GIZONAK

Praga'tik Paris'a

1968-ko urteak ez ditu Kondairako illunpeak bazuko: gaur arte gertaturik dagoena aski litzake, soilik, 1968-ko urtea etorkizunean gogoangarri izateko.

Eskozia'k, Quebec'ek, Breñaña'k eta beste zenbait eskualdek, zapalduko etnien bultzada indartsua erakutsi dute: erresuma zaharrekiko uste ona kaxkartzen ari da edonun, eta bere ordez hizkuntza oinarritutako daukaten herrien kontzientzia eta bizi-nahia sendotzen. Fenomenu huren kaka oso sakona da; eta folkloerkeriaz besterik somatzen ez dutenak, kolpe latz askoren jasale gertatu dira urungo urteetan. Etnien zuzpertzeta eta erresuma zaharren erortzea gertaera berberaren alderdikaririk dirira; eta biek dituzte sustai eraubkaitzak.

Beste gertaera-sail bat gelditzen ari da gailen aurten goa hauean: Praga'ko aldakuntza sakonak batetik, Paris'ko «commune etudiante» dala-koa bestetik.

Ikasleen beren mogimendua ez da dana, ez da garrantzitsuena ere beharbada. Ikasleek, ordea, XIX-gn. mendetik aintzakotzat hartu izan dugun politika-mundu OSOA arbutatu dute. Eta hauxe da funtsezkoa; ez hunek edo harek esan duen xehetasun bat. Rudi Dutschke eta Cohn Bendit ez dira pentsaeraz alkarren-gandik oso urrun, ikasleen gertaera-sail hortan, loturarik ba ahal dago?

Axaleko sasi-azalpena oso ezaguna da: «ikasleen kontuak diral Beti gertatu izan dira horrelako istilluak! Betikoa dan!».

Hori, ordea, sasi-azalpen bat da. Gure begien aurrean gertatzen ari dana fenomenu larri bat da; eta fenomenu horren ezagugarri nagusia hau da (politikari gagozkolarik, ja-kiña): ezker berri bat, mundua guztiz ezesten duen gaztedi sutsua, Praga'n eta Paris'en, ikasleetan eta intelektualetan, burges erresuma batean eta sozialista erresuma batean batera, ez daal marxismo-leninismo ofizialaren barruan sortu.

Beste hitz marxismo-leninismo ofizialek arras at eta kontra baidiz. Beste hitz batzutan: Praga'n eta Paris'en marxismoaren krisia gelditu da nabarmenik. Eta Cohn Bendit'en esan gogorra egorearen eredu da, eta etorkizunaren aintzindari segurki: «Stalinismoaren ustelkeria gure atzetik datorrelarik, pozgarri zait manifestazio hunen aintzindariatzen aurkitzea». Zein izan da «L'Humanité»-ren erantzuna ondoko egunetan? Cohn Bendit Pampidou' ren jokoan eroria zala!

Trotskismoa? «Anarko-maoismoa», joan dan astean «The Observer»-en deitura erabiltzeko? Zer bait bai; bai-na gehiago ere bai, nik uste.

Aste hauetako gertaeretan, kapitalismoaren kontra eta komunismoaren kontra altxatu da gaztedia: biak salatu ditu gizonaren zapaltzailetzat. «Condiciones objetivas» dala-koen predikatzaile amorratuak, «menturazale» batzuen «txorakerien» kontra jarri dira hasieratik; kontra egon dira irmoki Billancourt'eko langeti-ateetan, langileen eta ikasleen arteko batasuna frenatuz; eta hasieran eta gero, «saltsa» har-tatik ezzer onik etor ezin zitekeala sinisturik.

Egia, ordea, besterik izan da: intelektualek eta gazteek, Unibertsidadean eta langietan, marxismo ofizialaren kontra abiarazi dute mogimendua. Ezker aldetik, beraz, Komunista Alderditik kanpora daudene lortu dute ezkerter berpizte bat. Frantzia'ko gazteek piztu dute Europa guzian itxaropenaren garra.

Zein ziran, beraz, herriaren buruzagitzak berriak agerrarazi dituzten baloreak? Zalantza txikia izan ditek huni buruz: sozialismoa askatasunean.

Praga'n eta Paris'en (eta Varso-

via'n Gomulka'ren astindua etorri arte) ukatu egin zaio Komunista Alderdiari bere lehendakaritza. Bere geldikeria harroa eta dogmakioa kaltegarritzat salatu da. Eta Praga'ko «alderdi-gabeek» beren lerenengo bilkura izan dutenean, «gizatar sozialismoa»-ren alde burrukatzeko agindu dute; eta hau gañeiza eta kalerañio beteta zegoen bil-lekuan. Bigarren Budapest baten zeneke ez dute txekotar herria kikildu.

Gaurko burges soziedadea desegon nahi da han eta hemen: baiñan askatasunean, pluralismoan, auto-jestioan, autonomian, federalismoan, behetik gorako demokrazia egiazko baten bidez. Bakunin piztuko balitz, ba luke zertan pozturik... Marx berez da koloka dagoena; eta Lenin guztiz gaitindua.

Ez dakigu gaur (Maiatzaren 19-an) Frantzia'ko gertaerak zertan geldituko diran. Egoera larria da. Pampidou'ren gobernuaren egunak azketan daudela dirudi; eta beharbada ezkerter aginte bat nagusi dakioko De Gaulle'ri berari. Garrantzi handia luke hunek Europa'ko etorkizunerako, eta sozialismo berri baten garaitzapenerako.

Edo-ta ere, ba dute Euskal Herri'ko intelektualek zertaz gogoeta eginik. Frantzia'n —eta beste herrian ere bai— ezkerter sozialismoa gizar bat nundik sor diteketean eta nundik ez, garbi agertu da. Gauza bera Praga'n Moskui buruz. XIX-gn. mendeko erakundeen eta ipuñien garaia pasatu dago. Gu guzian eskuetan dugu, beraz, geure soziedadek behar duen sozialismo-mota berria asmatzea eta erakitzea.

Praga'ko eta Paris'ko gertaerak, hortaz, itxaropen-iturri oparo bat izan dira guretzat.

LARRESORO

nazio-alteko-unea

Komunistak eta Frantzia'ko gertaerak

RIKARDO ARREGI

Frantzia'ko gertaerak aberatsiegak dira artikulu motz eta laburretan komentatu ahal izateko. Bestaldetik, gertaera auk behar bezela aztertu ahal izateko ez dituz eskuartean drrigorrazkoak lirakan berri ta iritzi guztiak. Iritzi zaizkiten berri gehienean iturburua Madrille'ko egunkari ta aldizkariak dira.

Madrille'ko herrilarien berri ta iritziak irakurriaz bi izan dira atentzioa deitu didaten iritziak ta joerak. Bi iritzi ta postura auk gafierra, gozura baldin badirudi ere, gertaeren muña ikuitzen dutela uste. Bi postura esaterakoan gafierra ez dut esan nahi batzuek postura bat defenditzen dutela ta besteak bestea. Berrilari berdiñak dirala bi posturak nahasten dituzte-nak, ori da esan nahi dutena.

Alde batetik, eten gabe eta indar guztiarekin, komunistak eta bere mendeen dagoen CGT sindikatoak moderadorearen eta leguntzailearen papera egin duela esan eta berresaten da. Partiduko ta sindikatuko langille buruzagien zentzua seinalatzen da unibersitarioen apolagabekeriaren ondoan. Au komentatuz «Arriba» egunerokoak maiatzeko 26'an au dio: «Ha sonado la hora de las izquierdas; la hora izquierdista de meter en cintura a los burgueses-estudiantes y de realizar pequeños recortes en la sociedad capitalista. La hora, en suma, de que el proletariado obrero cristalice sus viejos sueños de aburguesarse decentemente, de «abajo arriba», como está mandado...». Sentidu onan beñ eta berriro esan digute berrilariak langilleak nahi dutena zera dela: jornal oheak, sindikato sendokoak etab. Eta komunisten joera Frantzia'ko sentidu onaren adibidetzaz azaldu dute. Esanez bezela: zeñ da Frantzia'ko xistiman erreboluziolararen eginkizuna, egin behar dutena? Komunistak. Ta ara nola auker egiten dituzten gatazka pakean, gobernuarekin eta nagusiekin itzegiñaz, unibersitario estremistak kondentatuz. Au alde batetik.

Baiñan beste alde batetik ezin disimula dute zenbait komunistak bere ezkerretik gañezkatuak izatea. Betidaniko etsaia zorabiatuta arkitzen danean sortzen dan poza dirudi.

Erezibitutako ainbeste uste ta ideia zalantzan dauden ontan, erreboluzioa erabat ezinekitzat zirudien ontan bi postura auker kontuan artzea, artikularen asieran esaten nuen bezela, nolabat, gozura baldin badirudi ere, gertaeren muñiera nola alabir inguratzeta dela ukatzerik ez dago.

Norberta Tauer'en...

(Lenengotik dator)

tan izango da nik idatzitako zati bat, euskal-literatura erabilliko duena. Emen agertzeko den enziklopedi batean nik egindako artikuluak, usko-gaiak ikutzen dituztenak arkituko dira.

Praga Eusalerritik urrutu xamar egon arren, gauza asko emen dira usko-kutsuak erakusten dituztenak. Gaur aipatzen det bakarrik euskera-aren zaindari den Xabier'ko Prantzisko santuaren estatua. Emengo arrizko zubi zaarrean zutik dago.

Nere Aberrian ere aldaketa aundiak gertatu ziran. Orain erreztasun aundiagoa dut atzerrira idatzeko ta orregatik sarriagotan idatziko di-zuet. Gure lendakari berriaren abizenak / Svoboda'k euskeraz esan nai du «askatasuna» / ongi erakusten du emengo aldaketen zioa.

Praga'ko adiskideak gaurko egunean. Euskeraz egindako eskutitz batean, agertzeko euskaltzaletasun aundia du bere biotzean gogo txit bizia.

Euskera ederra, zaar eta gozoa, ez da mundu osoan ele antzekoa, ta beraren aldean erdera guziki dirudite oraindik umetxo txikiak.

Bizi bedi betiko euskera ezta, zuen aurrekoen ta ait-amen elia.

Praga'tik 1968'gko Loraillaren 24'an.

TAUER'tar NORBERTA

ASATE - OPARIAK

JATONTZI TA MAI - TRESNAK

Victor Pradera, 2 Urrutizkifia: 25700

D O N O S T I A

Baserriaren alde EUSKAL ETA ERDAL



Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián

Banen baneko azyiak Ongarri ta abonoak Belar Zuloak

Erosi edo berritzeko diru aurreretzeta

Baserri, lur-tresnak ta abar

Torelavega'ko Perira joan etorriak.

Kontu emen! Euki gogoan!

Adiskide ta etxekojaunok! Zuen entzateentzako esku-erakutsirik onena. Zuen sukaldarako apaingarri Eltze azkarra. Asadora-Freidora RADAR. Erre ta piritzako aukerakoa SUPERCACEROLA A PRESION «RADAR». Juegos Espátulas y juego Cubierto «RADAR». LANTEGIA - INDUSTRIAS RADAR — ESKORIATZA (Guipúzcoa)



NORK KUKURRUKU:iiiiiiii

OLLARRAK

OLLOTEGIAN?

...Ez. FAGOR,ek

sukaldian

CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE PAMPLONA

SARASATE, 5

TELEFONO 224440

Onen ajeztziak erri auetan dituzte:

Tudela, Billaba, Huarte-Iruñe, Etxarri-Aranaz, Txantrea, Errotxapea, Azagra, Eneritz, Martzilla, Isaba, Huarte-Arakil, Ensanche, Lerin, Otxagabia, Karkar, Olazagoiti, Sartaguda, Ablitas, Milagro, Fitero, Kadreita, Andosilla ta Noain-Berlain.

Agencias:

Tudela, Villava, Huarte-Pamplona, Echarri-Aranaz, Chantrea, Rochapea, Azagra, Enériz, Marcilla, Isaba, Huarte-Araquil, Ensanche, Lerin, Ochagavía, Carcar, Olazagutia, Sartaguda, Ablitas, Milagro, Fitero, Cadreita, Andosilla y Noain-Berlain.

